

Kultura

Pako Aristiren 'Euskal kantagintza berria' berrargitaratu du Ereinek

Jon Eskisabelek egin dio hitzaurrea, eta 'Kcappo. Tempo di tremolo' ere berrargitaratu dute

Itziar Ugarte
IrizarPako Aristi idazlea, atzo, *Euskal kantagintza berria* lanaren berrargitalpena aurkeztu aurretik. © JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

2020ko maiatzak 22



Pako Aristiren agerpena izan zen: 1985eko udaberrian *Euskal kantagintza berria* kronika lanarekin lehenengo, eta gero, urte bereko udazkenean, *Kcappo. Tempo di tremolo* nobelarekin. Artean 21 urteko kazetaritzako ikaslea zen Aristi (Urrestilla, Azpeitia, Gipuzkoa, 1963), baina bazebilen jada lehen erreportajeak eta elkarrizketak publikatzen han-hemengo agerkerietan. Hala ezagutu zuen Bernardo Atxaga, eta hark eraman zituen *Euskal kantagintza berria* izango zena idazteko proposamena eta Aristiren izena Ereinen. 35 urte igaro dira ordutik, eta, luzez agortuta egon ostean, lana berrargitaratzea erabaki du argitaletxeak. Atzo aurkeztu zuten, bideokonferentzia bidez, egileak eta Inaki Aldekoa editoreak.

«Gure klasiko txikietako bat» bezala definitu zuen Aldekoak Aristiren lana, aurretik ikusi gabeko liburutzat. «Orduko kantagintzak izan zuen arrakastaren eta eraginaren lehenengo biltzailea izan zen Aristi. Alde horretatik, lan erreferente bat izan da eta da». Idazten hasi berria zenaren «freskotasun eta etorriak» ere ezagugarritu zuen lana, editorearen ustetan, eta baietz buruarekin egileak, berak ere hori sumatu duela «duela 35 urteko Pako Aristi» irakurtzean.

Oroitzen duenez, «zorutzen» jaso zuen Ereinen enkargua Aristi gazte hark. «Batetik, euskal kantagintza asko entzuten nuelako, eta jende horrekin egotea opari handi bat izan zelako; eta, bestetik, lanerako sekulako gogoia eta ilusioa nituelako». Liburuaren egitura hiru elementuk osatuko zutela erabaki zuen: elkarrizketek, hemeroteka lanak eta horiek josiko zituen fikziozko istorio batek. Azken horretarako bi *alter-ego* sortu zituen Aristik: berarena, narraziole lanak egingo zituen, eta argitaletxeko Asentxio Ondartzabalena. «Karneta banuen, baina autorik ez, eta Asentxio izan nuen txoferra kantarien etxeetara egindako bidaietan», azaldu du.

Idazten hasitakoan, berehalakoan ohartu zen arazo batez: erreferentzia faltaz. «Garai hartan euskal kantagintzak presentzia handia zeukan, maila askotan, jendearengan, politikan... Egun daukan baino mila aldiz gehiago. Oso gai apetitosoa zen, baina inork ez zuen horren inguruan ezer idatzia».

Erreferentzia faltan, fakultateko irakasleek *Rolling Stone* aldizkari kulturala erakutsi izana oroitzen du Aristik, hor topatu zuela liburua osatzeko behar zuen teknika narratiboa. «Ipar Ameriketako kazetaritza berriaren parametro horiek saiatu nintzen ekartzten nireta». Eta horrek zera esan nahi zuen: kantarien ahotik jasotakoaz gaindi, haien egoteko, janzteko, erretzeko, ibiltzeko modua ere jasotzea, detaile horiei guztiari adi egonda: «Ikuspegi globalago bat lortzen zen, eta asko gustatu zitzaizkan nola humanizatzen zuen horrek pertsonaia».

Ezer ez da berdin


1961etik 1985era arteko epea aztertu zuen Aristik, eta tarte horretako 22 musikari eta talde hautatu zituen elkarrizketetarako: Benito Lertxundi, Errobi, Gorka Knörr, Haizea, Hertzainak, Imanol, Itoiz, Izukaitz, Jotakie, Lourdes Iriondo, M-ak, Mikel Laboa, Mixel Labeguerie –ordurako hila zen, eta semea elkarrizketatu zuen–, Niko Etxart, Oskorri, Pantxoa eta Peio, Ruper Ordorika, Txomin Artola, Urko eta Xabier Lete. Ordu luzez elkarrizketatu zituen guztiak, eta modu zatikatuan antolatatu zuen materiala testuan, bakoitzari bere blokea eskaini gabe. Denborarekin ikusita, asmatu zuelakoan da. Berrikusteko puntu bat genero ikuspegia litzatekeela aipatu du, ordea: «Musika asko izan da gizonen mundua. Hamarretik bederatzita talde gizonzkoek osatzen zituzten, emakume gutxi zeuden orduko panoraman». Lau izen nabarmendu ditu: Lurdes Iriondo, Odile Kruzeta (Izukaitz), Amaia Zubiria eta Maite Idirin. «Aitortu behar dut ez niela eman merezi zuten lekua».

Jon Eskisabel Badok atariko arduradunak egin dio hitzaurrea berrargitalpenari, eta 1985etik hona euskal kantagintzak egindako bideaz aritu da bertan. Aristik adierazi du bera ez zela gai izango ariketa hori egiteko, egun ez duelako sentitzen aurreko aldi hartan kantagintzarekiko sentitzen zuen «inplikazio pertsonala»: «Euskal kantagintza garai hartan euskal identitate bat zekarren arte bat bezala ikusten nuen. Ez da ahaztu behar frankismoan hasi zirela. Euskal Herriaren ideia bera oso difuminatua zegoen, eta kantu horiek forma eman zitoten. *Gu gara Euskal Herriko gaztedi berria. Euskadi bakarra da gure abertia...* Jendeak buruz zekizkien. Hori dena galdu da». Hertzainak-eraino aztertu zuen Aristik, eta gero gertatu denaz ez dela nahikoa idatzi iruditzen zai: «Esperantza nuen norbaitek egingo zuela 10 urtera euskal kantagintzaren beste historia bat, eta hemengo hutsuneak estali. Egin dira liburua, baina talde edo mugimendu jakin bati buruzkoak; historia globalik ez da berriz idatzi». Eta Aldekoak ere berrets: «Gai askotan ez gara harantzago joan. Ez Dok Amairuren amaieraren inguruan dakiguna, esaterako, hemen dagoena da oraindik».

Goizeko buletina

BERRIAren papereko edizioaren gai nagusiak biltzen ditu egunero (astelehenetan salbu). Goizean goiz iristen da zure posta elektronikora.

Pribatutasun politika eta [Lege informazioa](#) irakurri ditut eta onartzen ditut



Albiste gehiago

28.474

Positibo emandakoak

2.013


Hilakak

384

Ospitalizatuak

Koronabirusaren azken datuak

Azkeneko 24 orduetan ez da hildakorik izan, 23 positibo berri detektatu dituzte PCR probekin, eta hiru gaixo ospitaleratu dituzte. Euskal Herrian 28.474 gaixo eman dute positibo guztira, koronabirusa atzemateko probaren bat eginda. Horietatik 2.013 hil dira. [Grafikoak, albiste barruan.](#)



Ikasgeletara itzuliko dira gaur Araba, Bizkai eta Gipuzkoan

DBHko laugarren mailako ikasleak, babilergoko bigarren mailakoak eta lanbide heziketako bigarren mailakoak izango dira lehenak. Halere, ez da presentzia handirik espero. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arabera, lanbide heziketako zentroen %20 ingururik irekiko ditu atek.



Bigarren faserako jakin beharrekoak

JON ORDOÑEZ GARMENDIA

Gaurtik aurrera araudi berri bat dago indarrean Hego Euskal Herrian eta ordutegi, saltokiei, taberna eta jatetxei, hezkuntza zentroei, kirola jarduerai, eta igerileku eta hondartzai eragingo die.



Hauskor azaldu da

A. IRAOLA - M. PERUARENA ANSA

Krisiaren hasieratik jakina zen COVID-19ak gogor erasaten diela adinekoko pertsonai; edadekoen zentroetan izan diren heriotza ugariak agerian utzi dituzte egoitzen sistemaren inguruko hainbat gabezia, eta galderak sortu dituzte toki horietan egotillarek jasotzen duten osasun artaren inguruan.

Irakurle agurgarria:

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu: irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta erakundeen diru-laguntzak ez dira nahikoa BERRIAren etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke.

Kazetaritza libre, ireki eta independentea egin nahi dugu euskaldunontzat. Euskaraz informatzea delako gure eginkizuna, eta zure eskubidea. Lagun gaitzazu bide horretan. Idatzi gurekin etorkizuna. Geroa zuzan.

Martxelo Otamendi

BERRIAko zuzendaria

0 iruzkin Berria [Disqus' Privacy Policy](#)

Berrienetik hasita



HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-ekin



Egin lehen iruzkina.

DISQUS

berria

Berria.eus - Euskal Editorea SM
Telefona: 943-30 40 30
Faxa: 943-59 01 72
Webgunea: webgunea@berria.eus
Publizitatea: publ@bidera.eus
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

JARRAITU

[f](#) Facebook
[t](#) Twitter
[i](#) Instagram
[y](#) Youtube
[r](#) RSS

SAILAK

Gizartea
Politika
Mundua
Ekonomia
Iritzia
Berria TB

Kirola
Kultura
Bizigiro
Ibilkari
Infografiak
Argazkiak

LEGEA

Lege Informazioa
Pribatutasun politika
Cookieak
Zozketak
Lizentzia
Publizitatea
Bidera zerbitzuak
MIDAS Media

